



# ANAITASUNA

AÑO I — Núm. 2      Suplemento a la Hoja      Julio-Agosto 1953  
"ANAITASUNA" de Guipúzcoa

## GURE ITXASOA

Ze ederrak direan gure itxaso bazterrak! Ikusi dozu inoiz, udabarriko arratsalde eder baten, Mundakatik Pedernalesera zatozala, Laidako plaieta? Axe bai ikuskizun miragarria: urrezko area, esmeraldazko itxasoa, diamantezko eguzkia, zidarrezko ibaia, ta edertasun guzti ori jagoten Izaro isleal

Zoragarria da, izan-be, gure itxasaldeal Orra or Biarritz, Donibane Lohitzun, Donostia, Zarautz, Deba, Lekeitio, Laga, Laida, Txatxarramendi, Bakio, Gorniz, Areta.

Edertasun guzti ori geuretzat, bere semeontzat egin deusku Jainkoak. Pozik biziteko. Osasuna eukiteko. Gorputzari deskantsu emoteko. Gero bizkorrago lan egiteko. Zeruko Aitari gure maitasun eta esker ona erakusteko.

Orrexegaitik, plaiak inor barik ederrak badira, Jainkoaren semez beterik, oraindiño ederrago. «Goratu daigun Jainkoa gure anai eguzkiagaitik, ain indartsu egin ebalako. Goratu daigun Jainkoa gure anai itxasoagaitik, ain eder eta atsegingarri egin euskulako». Olantxe kantauko leuke gaur-bere Frantziskok, Asisko poeta miragarriak.

Auxe erakusten deusku erlegiñoak. Ze gozoa dan olan kristiñau bizitzeal Guztiok — baita kristiñau

otzak eurak-be — sentietan dogu gure barruan olako kristiñau bizitzearen edertasuna. Orrexegaitik gura dogu gure plaiak garbiak eta lotsazkoak izan daitezcan. Ez Frantziako Cannes eta Niza'koen antzekoak. Lotsea zor deusagu gure gorputzari ta inorenari, Jainkoaren bizitokia data. Lotsea zor deutsegu gure umeeri, euren arimak Jainkoaren garbitasunaren ispilluak dira-ta. Lotsea jaioterriari, gure oitura ta ekandu onak zikinduteko ez gara jaiota.

Orretarako, lan egin daigun guztiok batera. Domeka goizean, eleizan euki dogun batasuna erakutsi daigun arratsaldean itxasertzean. Batasun onek emongo deusku indarra. Euki daigun gure kristiñautasunaren konzentzia. Guztiok daukogu arazo onetan erantzunbear aundia. Eta batasun au eraturteko, or dogu zuzendaria: gure Obispo Jauna, gure Artzaiña.

Alan bearrez, oraintsu eskatu deusku Berak plaietan kristiñauak-lez ibilteko, eta ekandu garbien alde Jainkoari otoitz egiteko. Orretarako, irakurri Orri onen irugarren paginian Errosario ostean esan zeinkean otoitza.

**Gure buruakaitik, gure umeakaitik, gure jaioterriagaitik, gure Jainkoagaitik kristiñautu daiguzan gure plaieta ederrak!**



Gure erlegiñoako gauzak direala ta ez direala, duda asko etorten yataz burura. Ondo jakin gura neuke kristiñau fedeak irakasten deustana. Orretarako, lagunduko leuskit Berorrek, Jauna?

Oba ez! Pozik ganeral Zuk diñostazun-lez, noizean bein, txitean pitean, alako ezeteda baieteda batzuk erabilten doguz barruan, eta poztu egiten gara geure duderi erantzuteko kapaz gareala ikustean. Baiña, zoritxarrez, sarri askotan ez gara gauza izaten gure ezbaieri artez erantzuteko.

ANAITASUNA eleizorri onetan-txe lagunduko deustut arazo orretan. Neu izango nozu maixu. Eta batetik bestera ez ibiltarren, eta probetxu geiago atarateko, arlo oso bat artuko dogu ikasgei, eta antxe jardungo dogu amaitu arte. Asteko, Sakramentuen Dotriña estudiauko dogu.

Ba dakizu Sakramentuak zer direan? Meza santua zer dan? Onelako preguntatxu batzuk egingo deustudaz pagiaña onetan, zeuk al dozun-lez erantzuteko. Gero, azkeneko pagiañan irakurri an dagozan erantzunak, eta ikusi zeureakaz ondo datoza ala ez. Amarretik zortzi artez erantzuten badozuz, orduan **Bikaiña** izango zara (erderaz Sobresaliente). Sei edo zazpi erantzun ezker, **Aurreratua** (erderaz Notable). Lau baiño erantzuten ez badozuz, **Egokia** (erderaz Aprobado). Lautik bera erantzun ezketiño, **Atzeratua** (erderaz Suspenso).

Gure artean amaika bidar sortzen dira diskusiñoak erlegiñoaren ganean, eta makiña bat bidar izaten dabe katolikuak ixillik egon bearra, ez errazoirik falta yakelako, errazoa zelan agertu ez dakielako baiño.

Iñogaz eztabaidan sartu bear dozunerako, irakurri erantzunak bein ta barriro; iru ta lau bidar ondo irakurri, arik-eta buruz ikasi arte. Bein ondo ikasi ezker, errez izango yatzu laguneri irakastea. Diskusiñoa **Círculo de Estudios** baten balitz, ondo litzateke Abade Jaun bat antxe egotea (edo arazo onetan ondo ikasidan bat), eztabaidak zuzendu ta erabagi artezak atara daizan.

Ona emen lenengo iru itauneak:



## SAKRAMENTUAK

1.—Sakramentuak zer dira?

2.—Ba ete dauko Eleizeak, Jesukristoren izenean Sakramentu barriak egiteko eskubiderik?

3.—Ni katoliku ona naz; baiña ez dakit zegaitik siñestu bear dodan Sakramentuak zazpi direana, ez geiago ez gitxiago. Egia esateko, nik ez dot ori siñestuten. Ez diño iñun Eskritura Santuak zazpi direanik.

Zuzen nago?.....Oker nago?.....

Erdi zuzen?.....Erdi oker?.....

(Beste zazpi preguntak, urrengorako)

# OLGETAN - BENETAN

—Txo, Patxi Alperl Zenbat eguntan emongo zeunkio munduari buelta?

—Egun baten.

—Egun baten? Ez da oraindiño olakorik ikusi.

—Bai gizonal Lurraren ganean asto baten-lez jezarriko nintzateke, ta arrel Munduak egunero buelta bat emoten badau, ezin neike neuk-be beragaz emon ala?



Mendi tontor baten, sasi orriak jaten egoan auntz bat. Inguruan ebillen-leoi batek ikusi ebanean, «Gaur ba yaukaat betekada galanta» esaten eban pozarren bere artean. Joan zan ba leoia auntza egoanlekura; baiña bertaraiño ezin eldu.

—Ator ona beara —diñotso leoiak. Bedar ohea dona emen. Erdu, lagun maitea; erdu ainbat ariñen. Ez az damutuko.

Baiña auntzak, leoiaren guzurra ta gosea igarrita,

—Eskerrik asko, leoi arduratsua —, erantzun eutsan. Benetan gerol Egonbe, bedar ona yagok or bean. Laster joango nok, baiña ez i or goan bitartean.

Ikasi leziñoa: ez siñestu beti adiskide antza daukenen berbeari, askotan euren ederragaitik baiño ez dabe egiten-eta.



Nunbaiteko erri baten, amar-amarbošt mutil gazte joaten gi zirean gau eskolara. Maixu giza joak, bere irurogetamar urtegaz, ez eban gauza aundirik ikusten.

Gau baten, maixuaren kontura barre egin bear ebelta, eskolan asto bat sartzea otu yaken mutilleri.

Maixuak bere aurrean astoa ikusi ebanean, zer zan igarri barik,

—I, jezarradi mesedez— esan eutsan astoari — eure lagunen ondoan.

Kristiñau ekanduak, garbi gordetako

## OTOITZA

Jesukristo, gure Jauna, zeuk imiñi zenduan gure eskuetan oraziñoaren indarra, eta zeuk gura izan zenduan, arimak salbetako, beste edozegaz baiño lenago, oraziñoagaz baliatu geintezala; gu salbetarren ixuri zenduan-odolagaitik, humiltasunez beterik eskatuten deusugu gure erria, arren, jagon daizula kristiñau erlegiñoaren arerioak gure kalterako zabaldu daben nasakeri ta lizunkeri uioletik.

Gure artean ez daiteala iñor jausi zure maldeziño ikaragarriaren azpian: "Zorigaiztokoa, eskandalua dakarrena!". Emon gure andra-gizoneri gaztediaren modelu ta jarraibide izateko adorea; emon kristiñau gurasoeri euren umeak ontasunean azteko argia; sendotu gure gazteak pekatuaren zirikaldien kontra; gorde zuri ta garbi gure umeen arimak. Amen.

Andra Maria, guztiz garbia, librau eizu, arren, loikeri ta nabarmenkeritik Espaiñiko Erria.

*(Bilboko Obispo Jaunaren erreguz, uda denporan Errosario ostean esateko)*



1.—**Sakramentuak auxe dira:** Jesukristo gure Jaunak, bere grazia ta birtuteak guri emoteko imini zitan ezaugarri agiriak. Jesukristo da Sakramentuen Egillea. Sakramentuak, señaile sentigarriak dira: Ikusi, entzun, gustau nai ikutu leitezazanak. Grazia adierazo ta emoteko dira.

2.—**Ez.** Eleizeak ez dauko Sakramentuak geitu nai gitxituteko es-



**Colombia.**—Manizales deritxon urian izan da aurtemeen Ameriketako Lugiñen Lenengo Kongresu Katolikua. Labrantzan lan egiten dabenen bizimodua obetutea, orixe izan da Kongresuaren asmoa. Olako batzarren bat bear leukee gure nekezaleak-be, baserriko erlegiñozko ta kulturazko problema barriak estudietako.

**Frantzia.**—Frantziako labrantza

kubiderik. Jainkoak bakarrik emon leikio gauza sentigarri bateri — esate baterako, ikusi, gustau eta ikutu leitezkean bateoko urari — grazia emoteko doia. Orregaitik, Jesukristok jarri zitan— Sakramentuak zazpi izan dira Eleizearen asieratik, eta zazpi izango azkeneraño, Trento'ko Batzar Santuak erabagi eban-legez.

3.—**Erdi oker, erdi zuzen.** Onelako gauza bat diñoana, ez da katoliku ona. Obeto esateko, hereje bat da. Orraitiño, ez dago oker, Sakramentuak zazpi direala Eskritura Santuan erakusten ez dala diñoanean. Baiña, ez uste Eleizearen irakaspenak Eskritura Santuan bakarrik dagozana. Protestanteak orixe diñoen. Jesukristok Apostolueri, Apostoluak Eleizeari, Eleizeak guri irakatsita dakiguz fedeko beste egi asko.

erriak, berrogetamar urtetik ona ia danak kristiñau fedea erdi galdu egin dabe. Labrantza erriok egokera errukarri orretatik atarateko, **Baserri Misiñolarien Institutoa** sortu da. Instituto orretako Frailleak labrantza errietan bakarrik jarduten dabe. Aurtan da euren amar urtebetegarrena. Ori dala-ta, gure oraziñoak eskatuten deuskuez. Otoitz egin daigun euren alde ta Frantziako baserriarren alde. Eta guri ez dakigula jazo eureri pasau yakena.

**Naparroa.**—Pasau dan garizimako gau baten, bi milla napar mutil gazte joan zirean pelegriñaziñoan Jaberko Gaztelura. Bederatzi kilometro azkenak oiñez, otoitzean eta Kalbarioak errezetan, egin zituen. Ara eldurikoan, danak meza entzun eta jaunartu eben.

**Orri bakar bat, 25 zentimo**

Ogetabost orritik gora erosi ezkeru, 15 zentimo orri bana

Eskabideak direziño onetara:

*P. Rector del Colegio Seráfico*

PP. Franciscanos

FORUA (Vizcaya)

Dirección responsable: R. P. Director de "ANAITASUNA" TOLOSA (Guipúzcoa)

Imprenta Moderna.-Guernica